



Euskadiko Lehendakaria

El Lehendakari de Euskadi

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailak 1a

KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEARI

Kanpoan den euskal komunitateari zuzendutako lehenengo mezu hau baliatu nahi dut zuei esateko Euskadiren nazioartekotza dela Eusko Jaurlaritza berriaren lehentasunetako bat. Gure herriaren etorkizunerako erronka bat da.

Euskadiren nazioarteko proiektzioa ezinbestekoa da gure kultura eta gure identitatea munduan zehar zabaltzeko. Eta eszenatoki global berri honetan ezinbestekoa da gure garapen ekonomikorako eta sozialerako ere.

Gure xedea da munduan presentzia eta proiektzioa irabaztea. Gure espazio propioa lortzea nazioartean, gure herriak parte hartze zuzena izatea eta gure herria onartzea. Hori erronka ekonomiko eta kulturala da, baita instituzionala eta politikoa ere.

Jakin badakit XXI. mendeko nazioartekotzak bilakaera kultural sakona eta garrantzi handikoa dakarkiola gure herriari. Gero eta zabalago eta globalago den mundu baten sartu behar dugu. Ez gara zerotik abiatzen. Beti mundura zabalik bizi izan gara.

Orain aurrerago joan behar dugu eta elkarrekin egin behar dugu hori. Orain ahalegin publikoak eta pribatuak, ekonomikoak eta kulturalak batu behar ditugu, ahalik eta gehien, barne aldekoak zein kanpo aldeko sareak lagun harturik. Badakigu gure aktiborik hoberena ordezkatzeko duzuela. Munduan zehar dagoen euskal sarea zarete.

Kanpoan den euskal komunitate guztiari hurbiltzeko politika eta konpromisoa dira gure xedea, eta horretarako, batez ere, euskal etxe eta federazioen oraingo sarea erabili eta hedatu nahi dugu. Badakigu gure herria hazteko bermerik hoberena zaretela. Eta horixe da gure helburua.

Kultura bat eta identitate sentimendu bat partekatzen dugu, historia bat eta balore batzuk partekatzen ditugu. Euskadi munduan hazteko helburua partekatzen dugu. Gurekin batera etortzeko eta bide hori elkarrekin egiteko eskatu nahi dizuegu.

Eskerrik asko!

Iñigo Urkullu Renteria